

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

341

Urtarrilak 15, 2019

- 2 Irun Atzo Irun Gaur
- 3 Berri Laburrak
- 4-5 Via Irun proiektua
- 6 Publierreportajea: Caser
- 7 Bizinema Bang Bang
- 8 Kirolak: Beñat Bengoetxeari elkarrizketa
- 9 Kirolak: Leka Enea Mahai-tenis Kluba
- 10 GORKA MARTINEZEN kolaborazioa
- 11 Haurren leihoa / Denborapasak
- 12 Euskara Irunen Barrena / Gazteen lanak
- 13 Beti Gazte: Azterketa garaia
- 14 Gazte Informazioa
- 15 Agenda



ola
SAGARDOTEGIA
Iñaki Bengoetxea

**TXOTX BERRIA
IREKIERA FESTA**

Urtarrilak 20

ZATOZ !



Juan Vollmer



REF: G1483

Enpresaria. Alemanian jaio zen arren, lotura estua izan zuen Irungo hiriarekin. Antonia Angoso irundarrarekin ezkondu zen. Bizar-orrien fabrika bat erosi zuen Irunen eta 1864an Solingenen(Alemanian) erregistratua izan zen "Palmera" marka Espainian eskuko erreminta eta guraizeen fabrika baten izen bezala erabiltzeko baimena eskuratu zuen. Garapena nabarmena izan zen; denborarekin kalitatearen sinbolo bihurtu zen, enpresan sortutako beste produktu batzuek babestuko zutena. Fabrika pabilioi berrieekin zabalduz joan zen eta, denboraren poderioz, makina espezializatuagoak instalatu ziren.

Urte haietan 1.200 langile izatera iritsi zen eta enpresako langileentzako etxebizitzak eta ekonomatu propioa martxan jarri zituen. Irungo Real Union klubeko presidentea izan zen 1946 eta 1950 urteen artean. 1972 urtean omenaldia berezia egin zitzaion enpresariari eta negozio gizon-emakume ugari parte hartu zuten bertan. Opari moduan Gerard de Rose erretratugilearen margolan bat eman zitzaion.

Nafarroa etorbidearen amaieran kokatutako kale batek bere izena darama, fabrika egon zen zonaldearen inguruan.

Iturria: Agustin Morate.
Irún y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Zuhaitzen mantentzea bermatzeko 100 esku-hartze aurreikusten ditu Irungo Udalak

Irungo Udalak 100 esku-hartze aurreikusi ditu zuhaitzetan beharrezkoak diren mantentze-lanak aurrera eramateko. Horretarako, 2019 urteko martxora arte luzatuko den auzokako plan bat eratu da. Bi urterako milioi erdia gainditzen duen aurrekontua du proiektu honek eta aurreikusitako ekintza gehienak hiritarren eskakizunei erantzunez egingo dira.

Lanak inausketa garaian egingo dira, zuhaitzen garapenean ahalik eta oztopo gutxien eragiteko. Lanak 2018ko azaroan abiatu ziren eta jada Katea, Pinudi, Larreaundi eta Elitxu-Lapize bezalako auzoetan esku-hartze ezberdinak egin dira. Cristina Laborda ordezkariak azaldu duenez, "auzokako plan bat eratu den lehen aldia da hau". Ordezkariaren hitzetan, lan hauen helburua, espezie bakoitzaren behar bereziak errespetatuz, maiztasun zehatz batekin mantentze-lanak beharrezkoak dituzten zuhaitzen zainketa aurrera eramatea da.

Guztira, 221 esku-hartze egingo dira hiri osoan zehar eta esku-hartze horietako bakoitzean zonalde berean kokaturiko zuhaitz bat baino gehiago inplikaturik egon daitezke. Esku-hartze horiek ezinbestekoak dira zuhaitzen altuera eta hazkundera kontrolatzeko. Honela, 2019 urteko lehen mantentze-lanak Mendibil Parkearen eremuan eta Belaskoenea auzoan abiatzea aurreikusita dago.



"Ganbera igandeak" Ricardo Requejo musikariaren omenez

Ia abiatu zen "Ganbera igandeak" programak izena aldatu du 2018an hildako Ricardo Requejo piano-joleari omenaldia egiteko. Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak, Juan Mari Ruiz, Raffaella Acella eta Leticia Vergara musikari eta irakasleek jakinarazi zuten ganbera zikloak izen berria estreinatuko du aurrean. "Ricardo Requejo ganbera-zikloa" izango da musikarien biltzar honen izen berria hemendik aurrera. Hortaz gain, otsailaren 24ean musikaria omentzeko ongintzazko kontzertu berezia egingo da Amaia Kultur Zentroan.

Proiektu honen bidez eskualdean jaio ziren eta orain hiritik kanpo lan egiten duten bertako artistei Irunen haien lana erakusteko aukera ematea bilatzen da. Era berean, Hiriko Urrezko Domina jaso zuen musikariaren lana omendu nahi da.

Zehazki, urtarrilean hasi eta maiatzera arte egingo diren bost kontzertuz osatutako zikloa izango da. Irun eta Hondarribian musika ikasten hasi ziren musikariak izango dira aurtengo zikloko protagonistak, hain zuzen ere, orain Espainiako eta Europako orkestreta ospetsuetako musikariak direnak.

Egutegiari erreparatuz gero, ziklo honen barruan aurreikusitako lehen kontzertua urtarrilaren 13an egingo da.

izan zen. Carlos Apellaniz, Oscar Oliver, Jaime Atristain eta Jorge Pachecok osatutako laukotearen kontzertua izan zen Amaia Kultur Zentroan egingo diren bost kontzertuen artean lehena.

Hurrengo data otsailaren 10ean izango da, Jesús María Castillo, Miguel Echepare, Pedro Martínez, Miguel Sansiñena eta Juan Carlos Ribelles metalezko bostekoarekin.

Martxoaren 10ean, berriz, Maria Rallo eta Belen Sierraren biola eta piano doinuen txanda izango da. Apirilaren 14ean Irungo Ametsa abesbatza Eneko Amundarainen gidaritzapean entzuteko aukera izango da. Azkenik, maiatzaren 5ean Oiasso Kamerata eta Julen Zelaia biolinistak eskainiko dute ziklo honen barneko azken kontzertua.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
 info@inmobiliariaolaizola.com
 www.inmobiliariaolaizola.com

Trenbidetik hiriaren

Historian atzera eginez, Irungo hiriak lotura estua izan du betidanik tren munduarekin. Orain, etorkizunari begira, Vialrun proiektua martxan jarri da Irungo trenbide inguruko eremua berri eta, erdigune berria bihurtuz, etorkizunean hiria eraldatzeko helburuarekin. Gainera, hiritarren partaidetza ezinbestekoa izango da proiektuaren garapenerako.

Proiektu honen bitartez Irun aurrerapenaren eredu eta hiri atsegin bihurtzea bilatzen da. Horretarako, Aduana zaharraren inguruko trenbide-eremuari erabilera berri bat eman nahi zaio. Hortaz gain, abiadura handiko trenaren geltoki berria hirian nola ezarri bilatu nahi da. Miguel Angel Paez Hirigintza eta Hiri-Bultzadako ordezkariak adierazi duenez, "Udalak denbora luzea darama ADIFekin elkarlanean".

Espazio horren berrantolaketak aukera zabalak eskaintzen dizkio hiriari, honela, etorkizuneko Irungo hiriaren eraikuntzari ekiteko. Udalak eremu horretan ezar litezkeen jarduera ekonomiko eta zurkidurazko jarduerari buruzko ikerketa egin du, inguruko Europako beste hirien eraberritze prozesuen eredu jarraituz. Era honetan, Vialrun proiektuaren fase berri bat martxan dago jada, Hiri Proiektu Estrategikoan eta, trenbide eremuan, Hiri Antolaketarako Plangintza Nagusiaren (HAPNA) aldaketarekin.

Guztira, 10 aztergai hartuko dira kontutan Vialrun proiektua garatzeko orduan: lurralde eta hiri estrategia, trenbide azpiegitura, kolektibitatea eta mugikortasuna, eremu publikoa, ekonomia jarduerak, ekipamenduak, etxebizitza, ondarea eta aurreiritziak, ikuspegi inklusiboa eta jasangarritasuna eta berreraikuntza. Jose Antonio Santano Irungo alkateak proiektuaren inguruan adierazi du, "Irunek bizi duen iraultza sozial eta ekonomiko handiena da hiria XIX. mendean zabaldu zenetik".



Hiri proiektu estrategikoa

Hiri proiektu estrategikoa bat udalerritaren etorkizunari buruzko hausnarketa prozesua da. Irunen kasuan, Hiriko Proiektu Estrategikoak Hiri Barruti Berritzaile bat proposatzen du Aduanaren inguruan irabaziko den trenbide-eremuan.

Aprobetxamenduari dagokionez, jarduera ekonomiko berritzaile berrien sorrera bultzatzea bilatzen da Vialrun proiektuaren garapenaren bitartez.

"Udalak denbora luzea darama ADIFekin elkarlanean"

Miguel Angel Paez, Hirigintza eta Hiri-Bultzada ordezkaria

"Irunek bizi duen iraultza sozial eta ekonomiko handiena da hiria XIX. mendean zabaldu zenetik"

Jose Antonio Santano, Irungo alkatea



Fernando Vergara
argazkilaria

Letxumborro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



etorkizunera begira



Partaidetzako saioak

Urtarrilak 16

10:00-11:30
Haurrak eta gazteak

19:00-20:30
Ekonomia-ehuna

Urtarrilak 23

10:00-11:30
Udal zerbitzuak

19:00-20:30
Hiritarrak eta elkarteak

Urtarrilak 30

10:00-11:30
Haurrak eta gazteak

19:00-20:30
Ekonomia-ehuna

Hiri antolamenduko plan nagusia udalerrria bere osotasunean antolatzeko oinarritzko tresna nagusia da, udalerriko lurzoruaren eta eraikinen erabilerak arautzen dituen tresna juridiko bat, eta, arau juridiko bat den heinean, eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu, eta subjektu publiko eta pribatu guztiak lotesten; alegia, udal eremu fisikoan zer, non eta zenbat egin daitekeen arautzen du.

HAPNA planak hiri erdian dagoen lurzoru antolatzeko balio du, alegia, trenbidearen aztarna guztiak txukundu eta lurzoruak trenbide erabileratik askatzen

doazen neurrian hiriaren antolakuntzak proiektu global koordinatu bat edukitzeko.

HAPNA plazak, trenbide gunearen hiri-lurzoru sailkapenaren barnean, erabilera (jarduera ekonomikoa, erresidentziala, zuzkidurazkoa, ...) eta kopurua (eraikigarritasuna) kalifikatuko du. Hau da, trenbide gunearen barnean zer, non eta zenbat arautuko du.

Proiektua gertutik ezagutzeko aukera
Vialrun proiektua hiritarren artean ezagutzera emateko, bi erakusketa antolatuko

dira hirian. Lehen erakusketa Palmera Montero gunean bisitatu daiteke asteleheneretik ostiralera goizeko 8:00etatik gaueko 22:00etara eta larunbat eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, jaiegunetan izan ezik.

Bigarren erakusketa Txapaleta plazan kokaturik dago, aurreikusitako operazioaren eszenatokitik oso hurbil eta asteleheneretik ostiralera arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bisitatu daiteke eta larunbatetan goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00ak arte. Igande eta jaiegunetan, berriz, erakusketa itxita egongo da.

Partaidetzarako tartea

Proiektuan interesa duten pertsona guztiek izango dute otsailaren 15era arte proiektuan parte hartzeko aukera. Webgunearen bitartez iritzia emateko aukeraz gain, partaidetza saio ezberdinak antolatuko dira Palmera Montero gunean urtarriko hilabetearen zehar.

Abenduaren 9an egin zen urtarriko lehen saioa, batetik, udal zerbitzuak eta, bestetik, hiritar eta elkarteetara zuzendua. Aurrez aurreko partaidetza saio hauen bitartez proiektu hiritarrei hurbiltzea bilatzen da, sortutako zalantzak argitzeaz gain.

Neumáticos
txepetxa



**NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK**

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99





Real Unioneko futbolariak Anakako Caser Residencial egoitza bisitatu dute

Urtarrilaren 2, asteazkena, bisita berezia jaso zuten Caser Residencialek Anakan duen egoitzako egoiliarrek. Urtero bezala, Irungo Real Union klubeko jokalariek egoitzara hurbildu ziren. Futbolariak egoitza bisitatu duten hirugarren urtea izan da hau eta, beti bezala, esperientzia ahaztezina izan da egoiliar zein jokalarientzat.

Gabonetako etenaldiaren ostean, entrenamenduak berrartu eta ekintza aski bereziarekin hasiera eman diote urteari futbol jokalariek. Eguediko 12:30ak aldera iritsi ziren jokalariek eta Anakako egoitza korridore eta egongela ezberdinetan zehar ibili ziren egoiliarrekin hizketan.

Egoitzan Real Union taldeko zaletu ugari daude, beraz, egoiliarrek haien bizitzetan zehar talde irundarrarekin loturik izandako bizipenak eta oroitzapenak partekatzeko aukera ederra izan zuten. Jokalariek, berriz, arreta eta ilusio bereziz entzun zituzten egoiliarren kontakizunak.

Jokalarien bisita Eguneko Zentroan amaitu zen, jokalariek, egoiliar eta langileentzat prestaturiko lunch eder baten inguruan. Ricardo Garcia Real Unioneko presidenteak topaketa honen inguruan esandako esker hitzak entzun ostean, Jose Luis Reinosa klubeko kontseilariak abestutako jokin bertan bildutakoak hunkitzea lortu zuen.

Gainera, futbolariak, opari moduan, kolore zuri-beltzeko bandera, pintza, kamiseta eta bestelako merchandising produktu utzi zituzten egoitzan, bingo txapelketa eta zozketetan egoiliarren artean banatzeko.



Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

CASER BETHARRAM



Bizinema Bang Bang: zinemaz disfrutatzeko beste modu bat



2019 urteko lehen Bizinema Bang Bang saioa urtarrilaren 26an egingo da. Aurreko urteetan bezala, pelikulak bertsiu originalean ikustea gogoko duten zinemazaleak Amaia Kultur Zentroan elkartuko dira zinema saio bikoitz bereziaz gozatzeko. Aurten, urtarrileko saioaz gain, martxoan eta azaroan ere Bizinema Bang Bango saioak egitekoa asmoa dute.

Irungo Aurrekontu Parte-hartzaileetan hitarren iritzia biltzen zuen proposamen batekin abitu zen proiektu hau. Lehen saioa 2017ko abenduan egin zen. Antolatzailerak Donostiako Bang Bang proiektuko gidariekin elkartu ostean jaio zen Bizinema Bang Bang. Donostiko

proiektuko kidea den Jon Paul Arroyok azaldu duenez, "Donostian antolatutako saioetan publikoaren zati handi bat irundarra zela konturatu ginen". Orduetik, donostiarren esperientziaren laguntzaz, urtero Irunen saio ezberdinak antolatzeko elkarlanean aritzen da zinemazale talde hau. Lehen saioa egin zenetik, geroz eta gehiago dira Bizinema Bang Bang saioetara hurbiltzen diren zinemazaleak.

Bizinema Bang Bangen hurrengo saioa urtarrilaren 26ean, larunbatean, izango da. Amaia Kultur Zentroan arratsaldeko 17:30etatik aurrera. Zine klasikoko bi pelikula ikusteko aukera izango dute ikusleek: "La vida de Brian" eta "Terminator". Iñigo Martinezek antolatzailerak adierazi

duenez, "pelikula klasikoak jatorrizko hizkuntza eta pantaila erraldoian ikusteko aukera bikaina da". Hortaz, 5,35 euroren truke zinema saio bikoitzaz gozatzeko aukera izango dute ikusleek.

Pantailatik haratago

Bi pelikula prezio merkean eskaintzea baino zerbait gehiago bilatzen du Bizinema Bang Bangek. Horretarako, saio batetik bestera antolatzailerak ahalegin berezia egiten dute hautatutako pelikulen inguruko photocall-a, erakusketa, animazioa eta beste hainbat gauza antolatzeko. Juncal Eizaguirre, Kultura ordezkariak adierazi du, "Irunen zinemarekin loturiko ekintza ugari dauzkagun arren, Bizinema Bang Bangek zinema era ezberdin batean

disfrutatzeko aukera eskaintzen digu".

Antolakuntzaren alde ezkutua

Emanaldiaren egunean giro ona sortzeko ekintza osagarriak prestatzeaz gain, lan handia behar da era honetako ekitaldia antolatzeko. Izan ere, pelikulak aukeratu, produkzio-etxeekin kontaktuan jarri eta beharrezko baimenak eskatu behar dira, estreinaldiaren egunean dena behar bezala joan dadin. Saio bakoitzaren amaiera, zoriontasun hitzez gain, antolatzailerak hurrengo saioetarako proposamen asko jasotzen dituzte. Bang Bango kidea den Jon Paul Arroyok azaldu du, "pelikula onak ipintzeaz gain, publikoarentzat bereziak izan daitezkeen pelikulak aukeratzeko saiakera berezia egiten dugu".



Beñat Bengoetxea, triatloilaria:

“Triatloia praktikatzen hasi nintzenean ulertu nuen zein garrantzitsua den kirolean konstantzia mantentzea”



“Triatloia olinpiada batzuetan ezagutu nuen eta bertan kirol honetaz maitemindu nintzen”

“Sakrifizioa eta konstantzia ondo barneraturik izatea garrantzitsua da”

Argazkia: Estudio Gover

Beñat Bengoetxea, Hondarribiarra jaiotzez, Sevillan bizi da gaur egun lan kontuak direla medio. Futbolari moduan abiatu zen Beñat kirolaren munduan eta, 12 urtez Hondarribiko Futbol elkartearen ibili ostean, triatloia probatzera ausartu zen. Jada sei urte inguru daramatza triatloia praktikatzen eta, entrenamenduei esker, etorkizunean lorpen berriak eskuratzeko irriketan dago.

Triatloia pertsona askorentzat ezezaguna den kirol bat izan daiteke. Zuk nola ezagutu zenuen?

Gaur egun geroz eta federatu gehiago dauzkan kirola da, nahiz eta oraindik Hondarribia eta Irunen afizio gutxi duen. Triatloia olinpiada batzuetan ezagutu nuen eta bertan kirol honetaz maitemindu nintzen. Txikitatik gure artean tria-

tloi txikiak antolatu edo nire kabuz entrenatzen nuen, inolako profesionaltasunik gabe.

Beste kirolekin alderatuta, triatloia kirol sakrifikatuagoa da?

Kirol bakoitzak bere gauzak daukanez, nik ez nuke esango triatloia sakrifikatuagoa denik. Duela bi urte klub batean entrenatzen hasi nintzen, ordutegi eta taldeko entrenamenduekin eta, sakrifizio puntua duen arren, talde kirol baten antza gehiago du orain.

Konstantzia mantentzea garrantzitsua izango da ez?

Bai, triatloia praktikatzen hasi nintzenean ulertu nuen zein garrantzitsua den kirolean konstantzia mantentzea. Triatloian entrenamendu bat galtzeak, gutxienez psikologikoki, bere eragina dauka. Sakrifizioa eta konstantzia ondo barneraturik

izatea garrantzitsua da.

Lorpenak eskuratu ostean, hobetzen jarraitzeko nahia pizten da?

Bai, hori oso garrantzitsua da. Lehen urteetan garaipenak lortzea gehiago bilatzen nuen; orain, ordea, maila altuagoetan lehiatzeko aukerak lortzeak gehiago motibatzen nau, nahiz eta horrek sailkapeneko atzeko postuetara eraman nazakeen.

Lortutako garaipenen artean, ba ahal da era berezian gogoratzen duzun garaipenik?

Garaipen gutxi lortu ditut, baina, bigarren edo hirugarren postu asko egin ditut. Nire lehen triatloia Huelvan irabazi nuenean oso ondo gogoratzen dut, izan ere, lehen garaipena beti bereziagoa da.

Azkenaldian txapelketa askotan parte hartu duzu?

Aurreko urtea oso luzea izan zen, irailean entrenatzen hasi eta 2018 urrira arte lehiatzen ibili nintzelako. 13 hilabete gogor izan ziren eta urtean zehar 25 lehiaketetan parte hartu nuen.

Atsedendialdiaren ostean, noiz hasiko dira hurrengo txapelketak?

Orain aurre-denboraldiarekin hasi naiz berriz. Negu partean txapelketa gutxi dau den arren, otsailetik aurrera duatloi denboraldiarekin hasiko gara eta maiatzetik aurrera triatloi denboraldiarekin urrira arte.

Zein helmuga ezartzen dizkiozu zeure buruari hasi berri den urte honetan?

Lanak denbora asko kentzen didanez, aurreko urteko emaitzak lortzeaz gain, gus-tuko dudana kirola lagunekin partekatzen jarraitzea gustatuko litzaidake.

2018 urtea lorpenez beterik egon da Leka Enea klubarentzat



2018 urtea lorpenez beterik egonda Leka Enea Mahai-tenis klub irundarrarentzat. Lehia Kontinental ona burutu ostean gizonezkoen taldea laugarren txandan erori zen, emakumezkoen taldea hirugarrenera arte eustea lortu zuen bitartean. Urteko lehen erdiko ligetan erregistratutako emaitzak kluba orain arte lortutako onenetakoak izan dira.

Entrenamendu eta lan gogorraren ostean lortutako emaitza onei esker, Gizonen eta Emakumeen Superdibisio taldeak ETTU Cup-a jolasteko tarte zabalarekin klasifikatzea lortu zuten. Izan ere, txapelketa jolasteko klasifikazioa sartzea ohikoa bihurtu da azkenaldian Sonia Etxezarretako pistetan entrenatzen duten taldeentzat.

Emakumezkoen taldeek ere emaitza onak eskuratu zituzten joan den urtean zehar.

Ohorezko Emakumezkoen Dibisioak liga 5. postuan amaitzea lortu zuen, azken urteetan kategorian horretan talde irundarraren ordezkari izan ez duen arren. Gizonezkoek, berriz, 6. postua eskuratu zuten. Nazionaleko Emakumezkoen Lehen taldeak 3. postua lortu zuen eta 4. postua gizonezkoen taldearentzat izan zen.

Hortaz gain, Leka Enea klubak kategorian nazional eta autonomiko guztietan taldeak izatea lortu du aurten ere. Guztiek iraunkortasuna mantentzeko oinarritzko helburuari eustea lortu dute eta, hortaz gain, kasu askotan lehen helburu hori labur gelditu zaie, lorpen gehiago eskuratzeko erraza izan zaie eta. Espainiako Txapelketak ondo joan ziren, izan ere, klubeko jokalariek guztira 4 domina eskuratu baitzituzten.

Leka Enea klubeko Gizonen Superdibisio taldeak 5. posizioan amaitu zuen liga, 4 garaipen, 4 berdinketa eta 2 porrot izan ostean. Iberdrolako Emakumezkoen Superdibisio Ligan emakume irundarrak ez ziren atzean gelditu. Izan ere, Leka Eneako taldeak 5 postua eskuratu zuen, txapelketan 6 garaipen eta 5 porrot lortu ostean.

Iparraldeko Gazteen Txapelketa

Abenduaren 29an Iparraldeko Gazteen Txapelketa antolatu zen Irunen. Guztira, kategorian ezberdinetako 150 jokalarik gazte bildu ziren Artaleku Kiroldegi eta Sonia Etxezarreta Teknikazio Zentroan antolatutako txapelketan. Parte-hartzaileren artean, 15 kirolari irundar baino gehiagok jantzi zuten Leka Enea klubaren kamiseta.

Klubeko jokalariek eskuratutako emaitza aipagarrien artean, Irati Yarzabal nesken Alevin kategorian garaile izan zen, mutilen kategorian Iker Plazak 2. postua eskuratu zuen bitartean. Kategorian Infantileko podiumean Leka Eneak ordezkari izan ez zuen arren, nesken kategorian Jubenilean Elene Sagardia garaile izan zen bitartean, eta Garcia azpi-txapeladun titulua lortu zuen.

Hortaz gain, aipagarria da Alevin, Infantil eta Jubenil kategorietako dominak batuz gero, Leka Eneak domina kopuru handiena eskuratu zuela beste taldeekin alderatuta. Horrela, ETM Torrelavega eta Donostiako Atletikoari aurrea hartu zion klub irundarrak, bakoitzak 3 domina eskuratu baitzituzten soilik. Era honetan, Leka Enea klubeko harrobiko jokalarien lan ona agerian gelditu zen.





Pertsonak zein taldeak kohesionatuak, zoriontsuak eta motibatuak izatea funtsezkoa da proiektu/enpresa baten etorkizuna bermatzeko!

www.anaeguiazabal.es
info@anaeguiazabal.es

- ✓ Saio indibidualak
- ✓ Egokiturako tailerrak
- ✓ Taldeentzat prestatutako tailerrak

Aralar mendilerroa: Sarrastarritik, Lareoko urtegia igaro, eta Sarrastarriko kobazulora



GORKA MARTINEZ

unpaisenmimochila.blogspot.com

Denbora: 3 ordu eta 30 minutu (geldialdirik gabe).

Gailurrak: Sarastarri (995m) eta Leitzadi (948m).

Zailtasuna: Erraza. Desnibel gutxiko ibilbidea, orokorrean ibiltzeko lur eroso osatua.

Sarrastarri Aralar mendilerroko gain txiki bat da, Lareoko urtegiaren gainean kokaturik dagoena. Gailurrean, berriz, arkeologo eta espeleologoentzat oso erakargarria den Sarastarriko kobazuloa bisitatu daiteke.

Ibilbideari hasiera emateko kotxea Atauneko (Gipuzkoa) Urkillalaga gainean utziko dugu. Lareoko urtegiara iritsi arte GR-20 seinaleak jarraituko ditugu, nahiz eta ibilbidean zehar leku interesgarriak ezagutzeko desbiderapenen bat egingo dugun. Ibilbidearen lehen 30 minutuetan zuhaitz hostotsuz beteriko bide batetik igaroko gara, ingurune zabalago batera iristen garen arte.

Aukera moduan, ibilbidea alde batera utzi dezakegu momentuz, Leitzadiko gainera igo eta inguruko bista panoramikoaz gozatzeko. Bidera itzuliz, Laoreoko urtegi eta Txindoki mendiak eskaintzen dizkiguten bista ederrez gozatzeko aukera izango dugu, Agaotzeko gainarrikiko paraleloan igarotzen garen bitartean.

Bidean aurrera eginez Sarastarriko gainera iritsiko gara, hau da, ibilbide honetako punturik altuenera. Gailurreko bidez disfrutatu ostean, GPSa martxan jarriko dugu Sarastarriko kobazuloa bisitatzeko. GPSak emandako oharrak jarraitzea gomendatzen da, ez baitago kobazulorako bidea seinalatzen duen kartelik.

Kobazulotik irten eta GR-20 bidea hartuko dugu berriro ere Lareoko urtegiraino iristeko. Urtegiaren bazkaldu ostean, etxerako bideari ekingo diogu.



EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meak ezuz, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

Toki Alai HH



Denborapasak

Zazpi hitz: Eguraldia

X	O	Y	U	J	V	E	H	H	Q	A	D	G	F	X	P	U
O	L	Z	J	F	T	M	S	R	H	I	Q	I	D	I	U	R
O	C	E	X	J	I	H	I	N	T	Z	K	E	A	L	C	T
E	I	Q	Q	W	N	P	Y	Y	L	I	N	F	Z	D	I	W
U	W	E	L	U	R	J	A	D	I	E	K	U	K	I	D	V
R	Y	V	E	K	B	F	V	L	Q	L	K	T	Q	V	Y	D
I	L	K	N	K	O	X	P	R	A	Z	I	A	F	B	U	Q
W	H	L	L	O	S	P	M	A	E	E	K	E	I	O	B	I
U	M	I	A	H	V	X	Y	N	E	U	I	N	P	T	Y	E
T	X	D	V	S	Y	L	B	R	M	B	W	E	G	G	Z	Y
K	I	S	W	L	W	A	L	A	I	U	E	O	H	E	O	Y
P	H	R	E	Y	T	N	A	E	A	E	E	G	V	C	E	U
H	A	E	P	D	T	B	E	A	H	V	Y	T	U	R	N	L
A	I	I	L	F	G	R	T	A	E	Y	U	A	J	Z	T	Y
Y	Z	C	Y	D	Z	O	Y	G	B	W	Y	P	N	O	K	Q
P	E	A	Q	J	D	M	U	D	H	A	Q	E	G	O	I	I
P	O	C	E	S	U	E	Z	I	X	A	Y	Y	U	Y	F	A

			2			9	4	8
	3				9		2	
	4				8		7	3
1	8	6	9					
	7	2				6		
		4	3				8	
				2	3	4		
				9		8		1
7	6	3	8					

Euri, elur, eguzki, lanbro, ekaitz, ihintz, haize

SVP DBH1

Euskaraz, Irunen barrena

Aranatz erri aundiya da

Aranatz erri aundiya da. Lauten ogei baserri battu. Eliz ttikiya du. Mutikuri eta neskari eskola erakusteko battu maestru eta maestra. Maestrak eztaki uskaraz. Maestruk itz batzuk badazki. Erretore jaunak izena du don Matias. Erretore jauna zarra da. Itxe batzutan ardiyak battuzte. Baserri itxe guzitan beiak badire. Zerriyak ere bai. Olluk ere bai.

Arantzako F.L.A., 13 urteko haurrari jaso (1960-V-4). Egindako galderei emandako erantzunak. Zuzenean hartua. (El Bidasoa, 1960-VI-18)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

TXISTEAK

Eskolan andereñoak kontrol bat jarri die ikasleei eta Matteok mutil bati kopia egin dio.

-Matteo, kopia egin duzu!

Esan dio andereñoak

-Nola dakizu hori!

Dio Matteok

Zure ondokoa 4. galdera

ez dakiela jarri duelako

eta zuk "nik ere ez"

jarri duzulako!

Bazegoen mutil bat hain baxua
hain baxua zela, kanika bat
hartu zuenean esan zuela
-Mundua nirea da!



ALAITZ ROBLEDO



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Liburutegia, ikasleen bigarren etxea azterketa garaian

Abendu eta urtarrileko hilabetetan, unibertsitate zein institutuko azterketek bat egiten duten garaian, liburutegiko ikasketa gelak jendez betetzen dira. Azterketa finalak edo errekupeazio azterketak gainditzeko esfortzu guztiak labur gera daitzeko liburu artean beharrezkoak diren orduak eman ezean. Hain zuzen ere, hauxe da hilabete hauetan zehar Irungo CBA Udal Liburutegiko ikasleen eguneroko ogia. Horregatik, ikasleen premiak erantzuteko, ikasketa-gelen ordutegia zabaldu ohi da egun berezi hauetan. Ikasleen ikasketa ohiturak hobeto ezagutzeko nahikoa da liburutegi atarira hurbiltzea.

Leire Garmendia eta Iñaki Aizpurua:

Matematika eta Ingeniaritza Elektronikoko ikasleak dira. Leirek Leioan ikasten duen arren, Irunen dagoenean egunero liburutegira etortzeko ohitura du. Iñakik Donostian ikasten du eta astean zenbaitetan etorri ohi da Irungo Udal Liburutegira. Ikasterako orduan liburutegira etortzea lagungarria zaien arren, instalakuntzen isolamendu akustikoa hobetzea eta, azterketa gaian batez ere, ikasleentzako espazio gehiago egokitzea proposatzen dute.



Iñigo Salmeron, Ainara Rivas, Mireia Aldaya eta Andoni Eizagirre:

Medikuntza, pedagogia, albaitaritza eta kimika graduetakoko ikasleak dira eta azterketa garaian Irungo Udal Liburutegiko zerbitzuen ohiko erabiltzaileak dira. Liburutegian ikasteko giro egokia dagoela uste dute, liburutegiko erabiltzaileen arteko errespetua funtsezkoa baita ikasketa giro aproposa sortzeko.

Hala ere, liburutegiko zerbitzua hobetzeko hainbat proposamen dauzkate. Zerbitzua hobetzeren, ikasleentzako espazioa berrantolatzea proposatzen dute, ikasleentzako leku nahikoa eskaini eta liburutegira sartzeko sortzen diren ilarak saihesteko. Hortaz gain, liburutegiko sarreran egin ohi diren kontzertuak ikasleei eragozpenak eragiten dizkietela salatu dute. Hortaz gain, liburutegiko ordutegia luzatzea eta jaiegunetan zabaltzea proposatzen dute zerbitzua osatzeko.

Ikasteko aholkuak

Liburutegian ordu asko sartzeaz gain, garrantzitsua da ikasterako orduan ohitura egokiak edukitzea. Hona hemen, Euskal Jakintzaren webgunean argitaratutako aholkuak:

- 1) Bizitza pertsonaleko arazoak alde batera uztea eta ikasketetan zentratzea, pesimista izan gabe.
- 2) Urduri zaudenean sudurretik arnasa sakon hartu, segundo batzuetan arnasari eutsi eta poliki-poliki ahotik botatzen baduzu urduritasuna lasaitzea lortuko duzu.
- 3) Ikasteko lekua egokitu: gela aireztatua, argi egokia eta arreta mantentzea galaraziko dizuten elementuak baztertu behar dira.
- 4) Erabateko isiltasuna lortzea ezinezkoa denez, musika instrumentala edo etengabe errepikatzen den soinua lagungarria izan daiteke. Izan ere, denbora tarte bat pasa ostean, soinura ohitu eta kontzentratzea lortu duzu.
- 5) Ez da gomendagarria ordu asko jarraian ikastea, horregatik, orduko 10 minutu deskantsatzea gomendatzen da.





- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webgunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

EGA 2019ko deialdia

2019ko lehen EGA deialdian izena emateko aukera zabalik dago oraindik. Izen-emate epea urtarrilaren 7tik 21era zabalik egongo da. Matrikula internet bidez egin daiteke eta, arazorik izanez gero, 012 telefonora deitu edo, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egonez gero, 945 018 000 telefono zenbakira deitu. Ahozko probaren kasuan, matrikulazio-kopurua kontutan hartuta, Hezkuntza Sailak erabakiko du probak zenbat egunetan egingo diren.

-Matrikula internet bidez egiteko:

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/euskara

- Azterketen egutegia:

- **Atariko proba:** Otsailaren 23an.

- **Proba idatzia:** Martxoaren 16an.

- **Ahozko proba:** Maiatzaren 24, 25 eta 31n - ekainaren 1ean.

Bidasoaldeko Helduen Hezkuntza Ikastetxe

2018-19ko ikasturteko bigarren lauhilekoko matrikulazio-epea urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra zabalik egongo da

Ordutegia: 9:00etatik 12:30etara eta 15:30etatik 18:30etara, ostiral arratsaldetan izan ezik.

Lekua: Bidasoaldea HHI (Olaberría 8, 20303 Irun).

Telefonoa: 943 246 000.

500 lanpostu emakume eta gizonentzat Ertzaintzan

500 plaza eskainiko dira Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalaren Agentea izateko. Eskakerak eskuragarria egongo dira Polizia eta Larrialdietako Akademiaren www.arkauteakademia.eus web-orrian.

- **Eskaperaren epea:** 2019ko urtarrilaren 31ko 24:00ak arte.

- **Adina:** 18 - 35 urte.

Suhiltzaileentzako lan-poltsa

Gipuzkoako Foru Aldundia suhiltzaileentzako lan-poltsa irekiko du.

Baldintzak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Eskola Graduatua, Lehen mailako Lanbide Heziketa...

Hizkuntza eskakizuna: Euskarako 1.

Epea: 2019ko urtarrilaren 16ra arte.



Asun Casasola ipuin-labur lehiaketa

Ipuinek "Nik sinisten zaitut" leloa izango dute abiapuntu bezala. Lehiaketa honen bitartez berdintasunaren aldeko jendartea bultzatzea eta genero indarkeria baztertzeari lortu nahi da.

-**Parte-hartzaileak:** Bi kategoria ezberdinetan banatuko dira lehiaketako parte-hartzaileak. Batetik, 10 eta 16 urte bitarteko gazteak eta, bestetik, 16 urtetik gorakoak.

-**Epea:** 2019ko otsailaren 9ra arte entregatu ahaliko dira lanak.

-**Hizkuntza:** Lanak euskaraz eta gaztelerez aurkezteko aukera egongo da.

-**Lanak entregatzeko:** Posta arruntaz Irungo Brontë liburu-dendara bidaliko dira (Kale Nagusia 16, 20304, Irun). Dendan bertan ere aurkez daitezke, jendaurreko ordutegian. Posta elektronikoz asuncasasolaipuinak.eus helbidera bidaliko dira.



Gonbidapenak doan Oiasso museorako!

Irungo Oiasso Museo erromatarrera nahi duzunarekin joateko aukera eskaintzen dizu Gazte-Txartelak. Oiasso museoak inguruko historia ondarea ezagutzeko eta erromatarrak Euskadin duela 2000 urte nola bizi ziren aztertzei aukera izango duzu.

Zer zozkatuko dugu? 10 sarrera bikoitz Irungo Oiasso Museorako.

Noiz: Hilabete bakoitzaren hasierako egunetan.

Irabazleak: Telefonoz eta, ostean, e-postaz jakinaraziko zaie pertsona irabazleei.

Sarrerak jasotzeko: Museoa bertan NAN-a eta Gazte-Txartela erakutsiz.

Paper-dendarik merkeena ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2 (atzeko alde) www.kopiar.net kopiar@kopiar.net 943 63 93 01

Urtarrilak

16

Kontu kontari haurrentzat

Zer: Kontu kontari haurrentzat "Mattinen beldurkuta" Ander Muñozen eskutik.

Non: CBA Udal Liburutegia.

Ordua: 17:30etan.

Prezioa: Doako sarrera.

Adina: 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat.

18

Irun zuzenean: Sidecars

Zer: Talde Madrildarrak "Cuestion de gravedad" diskoa aurkeztuko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:30etan.

Sarrera:

- Sarrera Orokorra: 16,65 euro.
- Langabetuak, nerabeak 14 urte arte eta Gazte Txartelaren titularrak: 12,50 euro.

Sarreraren salmenta: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo lehiatilan kontzertuaren egunean bertan.

19

"Xokolat" Familientzako antzerkia

Zer: "Xokolat" antzerkia Teatro Paraiso konpainiaren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Sarrera: 4,30 euro.

Sarreraren salmenta: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo lehiatilan kontzertuaren egunean bertan.

Iraupena: 45 minutu.

Hizkuntza: Euskaraz.



Denborapasen emaitzak

X	O	Y	U	J	V	E	H	H	G	A	D	G	F	X	F	U
O	L	Z	J	F	T	M	S	R	H	I	Q	I	D	I	U	R
O	C	E	X	J	T	I	I	N	T	Z	K	E	A	L	C	T
E	I	Q	O	W	N	P	Y	L	I	N	F	Z	D	I	W	
U	W	E	L	U	R	J	A	D	I	E	K	U	K	I	D	Y
R	Y	V	E	K	B	F	V	L	Q	Z	K	T	Q	V	Y	D
I	L	K	N	K	O	X	F	R	A	Z	A	F	B	U	Q	
W	H	L	L	O	S	P	M	A	E	E	K	E	I	O	B	I
U	M	I	A	H	V	X	Y	N	E	U	I	N	P	T	Y	E
T	X	D	V	S	Y	T	B	R	M	B	W	E	G	G	Z	Y
K	I	S	W	L	W	A	L	A	I	U	E	O	H	E	C	Y
P	H	R	E	Y	T	N	A	E	A	E	E	G	V	G	E	U
H	A	E	P	D	T	B	E	A	H	V	Y	T	U	R	N	L
A	I	I	L	F	G	R	T	A	E	Y	U	A	J	Z	T	Y
Y	Z	C	Y	D	Z	O	Y	G	B	W	Y	P	N	O	K	Q
P	E	A	Q	J	O	M	U	O	H	A	Q	E	G	O	I	
P	O	C	E	S	U	E	Z	I	X	A	Y	Y	U	Y	F	A

5	5	1	2	3	7	9	4	8
8	3	7	1	4	9	5	2	6
2	4	9	6	8	8	1	7	3
1	8	6	8	7	2	3	8	4
3	7	2	4	8	5	6	1	9
5	0	4	3	0	1	7	0	2
0	1	8	5	2	3	4	0	7
4	2	5	7	9	5	8	3	1
7	6	3	8	1	4	2	0	5

20

Santi Rodriguezen bakarrizketa

Zer: Santi Rodriguezen "Infarto ¡No vayas a la luz!" bakarrizketa ikusteko aukera.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera:

- Sarrera orokorra 14,60 euro.
- Langabeek, 14 urte beharagoek eta Gazte Txartelaren dutenek 9,40 euro.

Sarreraren salmenta: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo lehiatilan kontzertuaren egunean bertan.

22

"Faisaien uhartea: Historia kontatzeko moduak"

Zer: 2018ko Ribera Beken proiektu irabazlearen aurkezpena.

Non: CBA Udal Liburutegian.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Doan.

Egileak: Iraitz Agirre eta Ivan Gomez.

25

Emakume Artisten Zinemaren Zikloa

Zer: "Frida" pelikula Emakume Artisten Zinemaren Zikloaren barnean.

Non: CBA Udal Liburutegiko Areto balioaniztuna.

Ordua: 18:45etan.

Sarrera: Sarrera librea.

Iraupena: 120 minutu.



MOLDATU HOME

I N M O B I L I A R I A
H O M E S T A G I N G



MOLDATU HOME: ZURE ETXEBIZITZA SALTZEKO MODU BERRIA

Etxe bakoitza desberdina da, kontatu iezaguzu nolakoa den zuria!

Higiezin zerbitzuen kontzeptu berri bat aurkezten dizuegu, etxebizitzaren atontzean oinarrituta dagoena etxearen aurkezpen hobereana egiteko.

BIZILEKUAK saldu nahi ditugu, ez soilik metro karratuak.

Inmobiliaria Urtzi Goiogana eta Encarni Martinez Home Staging enpresak elkarrekin, gure errekurtsoak, esperientziak eta gehien bat, gauzak ondo egiteko gogoia uztertuz, etxebizitzaren salmenta / alokairua zerbitzu integrala eskaintzeko Home Staging teknikekin. Etxebizitzak saltzeko modu eraginkorrago batekin, eroslearen azalean jartzen garelako.

<https://www.inmobiliariaurtzigoigana.com/>

 **661875785**
(Urtzi)

 **656748202**
(Encarni)

Irungo kasinoaren atzeko iturrian aurki gaitzakezu,
Jose Ramon Agirretxe Alkate Jauna 1 plazan.

<https://encarnimartinez.es/>